

modernes.—3<sup>o</sup>) de travailler à constituer un *eskulara* littéraire qui servirait de trait d'union aux Basques de toutes les Provinces, sans se substituer, bien entendu, aux dialectes locaux.

Ce serait méconnaître l'esprit de l'Académie que de la considérer comme une sorte de Tribunal sans appel qui voudrait imposer à tous ses arrêts. Elle n'a d'autre but que de coordonner les efforts de tous pour le maintien et l'essor de notre vieille langue.

Nous espérons que votre attachement à notre langue vous inclinera à mettre vos lumières au service de notre Société.

Vous voudrez bien nous communiquer votre décision dans un délai de 15 jours à partir de la présente lettre.

Nous vous prions d'accepter, Monsieur et cher compatriote, l'assurance de nos sentiments les meilleurs.

Le Directeur de l'Académie,

Resurrección María de Azkue.

Le Secrétaire de l'Académie,

Luis de Eleizalde.

Envoyer les adhésions à Don Resurrección María de Azkue, 15, Campo de Volantín, Bilbao, ou Don Luis de Eleizalde, Chalet Gainzuri, Iralabbarri, Bilbao.

Idazki edo letra hau igortzen dautzugu frantzesez, Biltzarra hunek ez dualakotz oraino erabiltzen egin gogo duen izkiria-moldea. Barkatu othoi.

---

## BOST ETA SEIGAREN BATZARALDEAK

(Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundia'ren jauregian, Azaroaren 13'an)

ALKIETAN: Azkue, buruzagi; Agiré, Broussain, Campion, Eguzkitza, Intzagarai, Landerreche, Lhande, Olabide ta Urquijo.

### I.—GOIZ BATZARA (V'na)

1. Buruzagiak idazlari jauna (Eleizalde) Madriden dala darakus, bea'-bea'ezko a'fazoetara joana, ta Araudiko II gafen arauak emaniko eskubidez, Intzagarai euskaltzaiña idazlari-ordekotzat aukeratzen du.

2. Idazlari-ordekoak euskaltzain-ur'gazletzat izendatuko en erantzun baieztunak, geienak euskerazkoak, irakufi zituan:

*Bizkai'tik*: Nazario de Oleaga (Zeanuri, ur'ilaren 31), Severo de Altube (Gefnika, az'ilaren 2), J. C. Iburguchi ta Gabriel de Manterola (Eiba', az. 3). F. Belaustegigoitia (Bilbao, az. 4),

L. de Echavarri (Bilbao, az. 8), Pablo de Zamarripa (Oquendo, az. 10), ta A. de Urriolabeitia'renak.

*Gipuzkoa*'tik: José Cincunegui (Rentería, azilaren 1), Gregorio Mujica (San Sebastián, az. 3), Manuel de Lecuona (Gazteiz, az. 3), P. M. de Urruzuno (Mendaro, az. 7), Toribio Alzaga (San Sebastián, az. 8), P. de Lardizabal (Bilbao, az. 10) ta I. López Mendizabal'enak. (Tolosa, az. 10).

*Napafoa*'tik: P. Eusebio de Echalar (Lekaroz, uril 31) ta P. Celestino de Caparroso'renak. (Tudela, az. 5).

*Araba*'tik: Odón de Apraiz'ena. (Gazteiz, azil. 4).

*Lapufdi*'tik: J. Saint-Pierre (Baiona, az. 4) ta J. B. Daranatz'enak (Baiona, az. 6).

*Benabare*'tik: J. Heguy (Bezkoitze, az.), ta F. de St. Jayme'renak (Donapaleo, az.).

*Zuberoa*'tik: J. Urruztoy (Barkoxe, az. 4), J. de Menditte ta J. B. Constantin'enak (Atafatze, az. 7.).

Erantzun etzuteneri, ufengo batzar-egunerarte epea luzatzea itzaftu zan.

3. Euskaltzaiñ ufgazle an-emengoen artean jaftzeko autetsirik izan ziran: P. Manuel de Añandiaga, M. I. C. M., Carmelo de Echegaray, Spencer Dodgson, H. Winkler, H. Urtel, T. Linschmann ta Albert Léon.

## II ARATSALDEKO BATZARA (VI'na)

1. Euskaltzaindia bere bañeko arau, Olabide'k idatzi ta Azkuek euskeraratutakoak, ikef ta azteftzen arduraz asi zan. Ortarako euskaltzaiñ guzien eskuetan arau auek elaztiz moldatu-ta emanak izan ziran. (1).

(1) Auxe zan gutuntxo ofen len ateraldia: *Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca. Euskaltzaingoaren araudi estaria*. Editorial Vasca. Euzko-Argitaldaria. Bilbao 1919. Amabost ofi, in-16 einekoak, dauzka.

2. Azterpen ofen ondoan era befi batean apainduak gelditu ziran 2, 3, 9, 16, 17, 19, 28, 29 ta 30 gafen arauak ta Olabide'ri kidreak agindu zioten zetoñen aldirako autafkigintzari ta Eusko Ikaskuntza'rekiko yardunbideari zoazkonak Euskaltzaindia'ren gogoaren araura beñitu-ta idatzi zitzan. (1).

3. Batzafkide batek Euskaltzaindia'ri jakiñerazten dio, *Donostia'ko Udal-Bilkindegi'ko* (Museo Municipal de San Sebastián) Batzordeko jaunak, udalburuaren onespenez, aftu duten erabakia. Erabaki onek Bizkaia, Gipuzkoa, Araba ta Napañoa'ko Aldundiak goresten ditu laguntza berezia Euskaltzaindia'ren iraspenerako aldeztu dutelako, ta zorionezko agufak bai Eusko-Ikaskuntza bai Euskaltzaindi berari damazkie. Onek, txaloka, onesten ditu zorion-aguf oriek eta Eusko-Bilkindegi'ko jauneri eskefak biurtzen diezte.

4. Azkenik, Batzafburu jaunak, ufengo batzafaldietako egun, toki ta egikizunak dakařzkien txartel bat euskaltzaiñ bakoitzari aurfetik bidaltzea bere lepoko aftzen duala, dasa.

#### *Oarāk:*

1. Euskaltzaindia'ren deiari erantzun etzioten euskaltzaiñ omenezko ta ufgazle-gaientzat luzatu zan erantzuteko epea.

2. Intzagarai, idazle-ordekoak, Araudia'ri eginikako aldakuntzak, ufengo ateraldian jařtzeko asmoan, bildu ta gorde zituan.

3. Olabide'k bere gaiñ aftu zuan autafkigintzaren araudi beñia jostea.

4. Eusko-Bilkindegi'ko jauneri Euskaltzaindia'k eskefak eman zizkien.

5. Egun ortatik aufera, gure Buruak Batzafaldietako egun, toki ta erizkizunak dakařzkiten txaftelak bidali dizkigu.

---

(1) Orduan ipiñitako eraskin eta aldakiñak, Araudiaren bigafen ateraldian dakuskiketzu. Ona ofen izen eta itxura: *Euskaltzaindiaren barneko araudia. Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca* Bilbao. Euzko Argitaldaria. Editorial Vasca, 1920 Ogeita lau (12+12) ofi in-16 eineko. Lan ardurazkoa izanafen, utsune batzuk saftu zaizkio; bat 28 g. arauan; Euskaltzaindiak «afgitaratu naiz ilunpekoak»-en ordez, «afgitaratu naiz afgitaratzekoak» jařtzea agindu zan.